



## Donostia Euskadiko turismoaren buru

- *Uztaileko bisitarien sarreran %7,7 gora egin dutela erakusten dute, Gipuzkoan berriz %3,8 igo da eta gauraldiak %7 egin dute gora Donostian (%5,7 Gipuzkoan) Donostia Euskadiko turismoaren buruan jarritz. Gainera hiriburuaren datu onei esker, Gipuzkoa hazkunde haundiena izan duen lurraldea izan da.*
- *Helmugaren nazioartekotzea aipagarria da, nazioarteko turismoaren % 6,6ra igo da, Donostia VISIT- BIZI 2017-2021 Gida Planaren ardatzetako bat sendotuz.*
- *Txartel Turistikoaren eta hiriko zein lurralde osoko esperientzien salmenten gorakadetak, turismoko jasagarritasuna indartu dute ere.*

### DONOSTIA EUSKADIKO TURISMOAREN BURU

Uztaileko datuek Gipuzkoako hiriburua Euskadiko lider turistikoa dela egiaztatzen dute, gauraldien %7ko hazkundearekin eta bidaiarien-sarreran %7,7arekin. Hiriburua, halaber, atzerriko turismoa gehien ekartzen duena da, bai zenbaki-absolutuetan (112.806 gauraldietan) eta baita ehunekoan ere (% 6,6tan).


Ernesto Gascok, Donostiako lehen alkateorde eta Turismo zinegotziak Donostiako turismoaren bilakaera positiboa erakusten duten datuengatik, *“Turismoaren bilakaera positiboa erakusten dute eta hiriak kalitatezko turismoaren eta turismo iraunkorraren aldeko egin duten apustuaren ondorio dira”*.

Gasco-k 2018an Donostiako Turismoaren goranzko joera nabarmendu du: *“Oraindik abuztuko eta iraileko datuak falta dira, bi hilabete oso garrantzitsu. Gainera, gogoratu nahi dut Donostian turismoarekin lotutako sektorea ekonomiaren eragile bihurtu dela, eta horregatik urte osoan Donostia VISIT- BIZI 2017-2021 Gida Planaren ardatzekin lanean jarraitu behar dugula”*

Gipuzkoako hiriburuaren datu on hauek uztailean adierazle guztietan hobeto jokatu duen lurraldea izatea ahalbidetu du: bidaiarien- sarrera eta gauraldien hazkunde erlatiboa, okupazio-maila, batez besteko egonaldiak eta gelatiko errentagarritasuna.



## GAUALDIEN EBOLUZIOA 2018an



Aldi berean, uztailean 1.896 txartel turistikoa banatu dira, joan den urtean baino %9,98 gehiago. Txartelek errekurtso turistikotarako sarreretan deskontu interesgarriak bideratzearekin batera, garraio publikorako sarbidea ere errazten du bai hirian zehar baita lurraldean eta Elkargo Autonomikoko beste bi hiriburuetara ere.

## ZERBITZUEN, PRODUKTUEN ETA DONOSTIAKO ZEIN LURRALDEKO ESPERIENTZIEN ESKAINTZA SENDOTU DA

Hiria kalitatezko turismo gune gisa mantentzeko, deskontzentrazioan sakontzeko eta fluxu-turistikoa banatzeko asmoz, Donostia Turismo & Convention Bureauk produktu eta zerbitzuen eskaintza handitzeaz gain, bisitariari zuzendutako arreta indartu eta hiriko mugigarritasunari eta aparkalekuei buruzko informazioa hobetu du. Honi esker, 4.710 esperientzia saldu dira uztailean eta fakturazioa %25,01 handitu egin da.

Uztailean ireki den on-line salmenta-kanalari esker produktuen eskuragarritasuna eta bisitariaren esperientzia hobetu da. Gaur egun, bisita gidatuen % 11,35 on line saldu dira.



Salgai dauden produktu guztiak, **Donostia Turismoa & CBko kide diren establezimenduek** eskaintzen dituzte; hots, **tokiko enpresa txikiek**, ingurumenarekiko jasangarriak direnek. Esperientzia lokalak dira, kulturaz eta tradizioz betetakoak, eta Donostiako auzoetan zein lurraldean egiten dira. Horrela, turismo gunearen deskontzentrazioa, jasangarritasuna, kalitatea eta benetakotasuna bultzatzen dituzte.

<b>ACTIVIDADES OFERTADAS</b>	
<b>BISITA GIDATUAK</b>	Miramar Jauregia 125 urte
	Cristina Eneara bisita gidatua
	Ondarretara bisista gidatua
	Donostia funtsezko bisita gidatua
	Donostia bisita gidatu kulturala
	Urgul bisita
	Donostiako kostaldea txirrinda elektrikoan
	Donostiako auzoak txirrinda elektrikoan
	Eguneko bisita: oinez, txirrindaz eta pintxotak
	Bust turistikoa
	Tren turistikoa
<b>TXANGOAK</b>	Euskal Kostaldea tourra: Hondarribia eta Pasaia
	Euskal Kostaldea tourra: Zumaia, Getaria eta Zarautz
	Gipuzkoako kostaldea
	Txakoli bisita
	Iparraldeko kostaldeko tourra: Donibane Lohizune eta Biarritz
	Frantziako kostaldea
	Donejakue bidearen abentura
	3 tenpluak: Inaziotar bidea
	Albaola Itsas Kultur faktoria eta sagardotegia
	Flyscharen ibilbidea eta sagardotegia
	Tolosako Azoka eta sagardotegia
	Bilbo eta Gaztelugatxe
	Arabako Errioxako upeltegiak
	Idiazabal Gaztandegia eta sagardotegia
<b>GASTRONOMIA</b>	Pintxo Tourra Gros auzoan
	Pintxoak eta JBD-ko ardo dastaketa
	Pintxoak Donostiako auzoetan
	Goi mailako sukaldaritza tailerra BCC
	Goi mailako euskal sukaldaritza tailerra BCC
	Summer Pintxo Edition BCC
	Funtsezko pintxo sukaldaritza ikastaroa
	Sukaldaritza ikastaroa



	<b>Basque cooking class: France Rioja &amp; Navarra</b>	
<b>EUSKAL OHITURAK</b>	<b>Bisita pilotalekura eta erremonte partidak Galarretan</b>	
	<b>Erremonte partidak Galarreta frontoian</b>	
	<b>Sagardotegia Astigarragan</b>	
	<b>Adarrazpi gaztandegira bisita</b>	
	<b>Premium bisita Petritegin</b>	
<b>ITSAS IBILALDIAK KIROLAK</b>	<b>Katamarana</b>	
	<b>Bisitatu uhartea itsasontzian</b>	
	<b>SUP/Body Board/Piragua alkilatze aukera</b>	
	<b>Bizikleta surf eta Skate alokatze bonu mistoa</b>	
<b>AISIALDIA IKUSKIZUNAK</b>	<b>ETA</b>	<b>Kasinoan gaua</b>

Bestalde, Donostia Turismoa & Convention Bureauko informazio puntuetatik joan den urteko uztailean eta abuztuan baino bisitari gutxiago pasa dira. Hala ere, gurekin eta Donostiarekin bat egiten dutenek eta tokiko esperientzia bilatzen dutenek dira gure bulegoetara gehien hurbiltzen diren bisitariak.

Estatuko bisitarien ranking-a

1. Katalunia
2. Madril
3. Andaluzia
4. Valentzia

Atzerriko bisitarien ranking-a

1. Frantzia
2. Erresuma Batua
3. Alemania
4. AEB

Bulegora etortzen diren bisitarien %56-a atzerrikoak dira.

## **MUGIKORTASUNAREN ETA APARKALEKUEN HOBEKUNTZA**

Donostia Turismoa & Convention Bureauk **Udaleko Mugikortasun Sailarekin** batera egin du lan hiriko aparkalekuei eta mugikortasunari buruzko informazioa hobetzeko.

www.donostiaturismoa.com webgunean dago jasota garraio publikoan mugitzeko moduari (lineak, ordutegiak eta abar) buruzko eta aparkatzeko tokiei buruzko informazio zehatza. Hiriko aparkalekuak eta aldirietako aparkalekuak (doakoak dira eta autobusarekin lotuta daude hirigunera iritsi ahal izateko) jasotzen dituen plano bat



dago eta, era berean, aparkalekuen okupazio mailaren inguruko informazioa ere eskaintzen du denbora errealean.

Gainera, SanSebastianCard eta Basquecard txartelek bisitariari garraio publikoan mugitzea errazten diote, bai Donostian eta baita Euskadin ere.

